

EKINTZA KLIMATIKO ETA ENERGIA ARLOKO AHOLKULARIA

Posted on 14/01/2026 by Naider

DESKRIBAPEN OROKORRA

Ingurumen-ingeniaria edo hirigilea, graduondoko prestakuntzarekin eta trantsizio ekologikoko, eraldaketa energetikoko eta hiri- eta lurralde-birsorkuntzako prozesu estrategikoetan esperientzia duena.

Pertsona balioaniztunak, konprometituak eta gure inguruneko eraldaketa-prozesuekiko jakin-mina dutenak bilatzen ditugu; gaitasun analitikoak eta datuen kudeaketakoak uztartzen dituzten pertsonak, estrategiak eta plangintza formulatzeko gaitasuna eta interesa dutenak.

EGINKIZUNAK

Aholkularitza estrategikoko zerbitzuak aktibatzea, kudeatzea eta gauzatzea (ingurumenaren, energiaren eta hirigintzaren eta lurraldearen azterketa eta estrategia), eta jarduketak kudeatzea erakunde publikoekin (administrazioa eta agentzia publikoak), eragile zientifiko-teknologikoekin eta/edo enprekin lankidetzan, bai toki-mailan, bai Estatuko eta Europako esparruan.

Osagarri gisa, NAIDEReko taldeak dibulgazio- eta prestakuntza-jardueretan ere parte hartu ohi du.

EZAGUTZA-EREMUAK

Ekintza klimatikoa: egokitzapena eta arintzea. Ingurumena. Trantsizio ekologikoa. Trantsizio energetikoa. Ekonomia zirkularra. Hiri Ekologia. Hirigintza Jasangarria Azpiegitura Berdea. Ingurumen-ekonomia. Ingurumen-osasuna. Energia neutroko hiriak. Energia positiboko barrutiak.

PROIEKTUEN TIPOLOGIA

- Ingurumenari buruzko azterketa, toki- eta lurralde-mailan.
- Klima-aldaketa eta zerbitzu ekosistemikoak
- Ingurumen- eta klima-parametroen joeren azterketak
- Ingurumen Eraginaren Analisisa eta Ingurumen Onurak
- Ingurumen-, klima- eta energia-aldagaiak kuantifikatzeko tresnak eta metodologiak lantzea
- Hiri-adierazleen monitorizaziorako eta jarraipenerako behatokiak garatzea
- Informazio geografikoaren azterketa
- Hiria Berroneratzeko Planak
- Industria Espazioen Berroneratze Planak

- Hirigintzako plangintzan klima- eta ingurumen-irizpideak aplikatzea
- Trantsizio energetikorako eta hirigintza jasangarrirako ekimenak
- Energia-jarduketako tokiko planak
- Trantsizio ekologikoko eta ekonomia zirkularreko ekimenak
- Tokiko eta eskualdeko aholkularitza estrategikoko proiektuak, eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan.
- Politika publikoak diseinatzea, jasangarritasun-planak idaztea.
- Lurraldeak dinamizatzea, ekologiari eta iraunkortasunari dagokienez.
- Jardueren, ekitaldien eta enpresen karbono-aztarnak

LOTURA-EREDUAK

- Freelance gisako zerbitzu profesionalen kontratua
- Lan-kontratazioa. NAIDERen staffera lan-kontratuarekin sartzea.

BALDINTZAK

- **Ordainsaria:** Naider-en ordainsaria oso lehiakorra da eta hautagaiaren gaitasunen/esperientziaren/konprimituaren arabera oinarritzen da.
- **Malgutasuna:** Lanpostu honek presentzialtasuna eskatzen du atxikita egongo zaren lantokian, nahiz eta presentzialtasun hori telelaneko formula puntualekin eta beste malgutasun-eskema batzuekin konbinatzen den, kontziliazioa ziurtatzeko.

GUTXIENKO ESPERIENTZIA

Lanposturako eanguratsua den esperientzia profesionala behar da.

LANTOKIA

Bilbo / Donostia

HIZKUNTZAK

Gaitasuna **euskaraz, gaztelaniaz** eta **ingelesez**. Ahal dela, gaitasun osoa hiru hizkuntzetan aldi berean.

ESKAERA-PROZESUA

Bidali zure hautagaitza **naider@naider.com** helbidera. Guk diskrezio eta erantzukizun osoz kudeatuko dugu. Bilatzen dugunerako profil interesgarri eta egokiena duten pertsonekin jarriko gara harremanetan.

